

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2014ko martxoak 28 · 349. zenbakia. 25. urtea



Joeren aurka bidea egiten

Kirola ez omen zen emakumeen mundua. Urteen poderioz uste hau aldatzen ari da, baina oraindik asko dago egiteke.

09

Elkarrizketa
Zaraguetako DBH

20

Mundiala
Jubilatu eguna

21

Elkarrizketa
Aizpea Zuloaga

28

Moila bazterretik
Zigor Esoain

Karkarak publizista - administraria behar du

ilusioarekin eta gogoarekin

Bidali CVa martxoaren 11a baino lehen
karkara@karkara.com
Eusko Gudari kalea, 26-I




Eta helduentzat...
Uztailera deialdirako
IKASTARO TRINKOAK

**PET
FIRST
ADVANCED
MULTIMEDIA**

INGELESEKO UDALEKUAK

Uztailan, 4 orduz egunero
astelehenetik ostiralera
ingelesean aritzen joku,
txango eta jarduerekin.
5 - 12 URTEKOENTZAT
LEKU MUGATUAK
IZENA-EMATE AZKEN EGUNA: APirilak 11

INFORMAZIOA:
Orio Hizkuntzak

943 058 826 info@orihizkuntzak.com
668 858 826 www.orihizkuntzak.com
Ibaiondo 8 behea, Orio



349

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Miriam Garcia,
Iñaki Iturain
eta Idurre Lizarralde**Publizitatea**

Karkara taldea

Ale honetako boluntarioakOnintza Aiestaran
Anuska Esnal
Aizpea Esnaola
Zigor Esoain
Eider Goiburu
Unai Manterola
Eneko Sanz**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakEsti Uranga eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurilaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

HASI BERTSOTAN

RIKARDO UZKUDUN (DOINUA: ESPAINIAN BEHERA)

Mendi maratoia medio

Mendian dute batzuk
korrikako grina,
bizikleta, triatloi
ez al da berdina?
entrenatu beharra
dagota jakina.
Nik horrekin badaukat
ulertu ezina
mendian maratoia
etxean sprina?

Bi ume etxean da
berrogeitik gora
normalean gizona
gutxitan señora,
lana etxetik kanpo
eintzazu aproba!
Nondik arraio atera
ohi dute denbora
sekretua atera ez
sartzea izango da!

Baina ez hartu nire
kritika serio,
osasuna behar da
ze erremedio,
Gainera plazer hutsa
da eta dedio!
bakoitzari gorputzak
bale esango dio,
bitarten ondo pasa
mendia medio!



Donejakue bidea, Oriotik Zarautzera. KARKARA

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682

karkara@karkara.com



karkara.com

Saharako haurrentzat laguntza behar dugu

Ni, Idoia Erasun, 72815647Q NA-duna *Gueraraorio* elkarteko lehendakaria nauzue.

Orion Sahara herriari laguntzeko elkartea berri bat sortu dugu eta aurtengo udan lau neska-mutil etorriko dira bi hilabete pasatzera oriora *Oporrak Ba-kean* programa barruan. Mesedez eskatzen diot Orioko jendeari, banku entitateei edota enpresei, laguntza handia behar dugula proiektu hori aurrera eramanean ahal izateko. Ume hauek ezin dute hango bero ikaragarria jasan.

Edozer gauza hartzeko prest gaude:

- Erabili behar ez dituzuen arropak
- Jostailuak
- Janaria
- Eskolako materiala
- Mantak, toailak...

Eta batez ere dirua behar dugu ume hauen bidaiak ordaindu ahal izateko, eta berek udan pasa behar dituzten bi hilabeteak estaltzeko.

Dirua eman nahi duenak elkartearen kontu honetan ingresatu mesedez: ES76 2100 7957 1201 0007 7639/ CAI-XESBBXXX

Gueraraorio elkarteko cif-aren zenbakia: G75107128

Lehendakariaren telefono zenbakia: 674110276 ■ **Idoia Erasun**. *Gueraraorio* elkarteko lehendakaria

Moja-etxeko erreportajea dela-eta

Karkararen 348. zenbakian argitaratu zen Aiako Moja-etxearen inguruko erreportajea, zurrumbilora sortu zuena. Tartean, Aiako parrokiaren kritika jaso du argitaratu zuenak, eta gutun honek ere gai horri egiten dio erreferentzia.

Era guztietako erreakzioak izan ditu. Baina guztiak izan dira baliagarriak ahanzturan genituen gertaerak gogoratzeko. Zeresana eman du herrian, hortaz, herritarrek atzera begirakoa egin ahal izan dute.

Aldeko nahiz aurkako iritziak izan arren, guztiak era onean hartu ditut.

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egileak nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, Karkarak esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Iritziak iritzi dira eta beti izaten dira ongi etorriak.

Eskerrik asko, beraz, gaiaren aurrean izandako harrera eta jarreragatik. Zeresana eman du artikulua eta mota guztietako ekarpenak jaso ditut, guztiak aberasgarriak. Mila esker. ■ **Joxemari Gonzalez de Txabarri**. Aiako Postaria

Arkupetik Orioko herriari

Hauteskunde kanpainan Orioko komertzio txikiak defendatuko zituena esan zuen Bilduk. Esandakoa ez zuen bete, Eroskiri lizentzia eman baitzion merkataritza-establezimendu handi bat egiteko. Udalak, hitzartu bezala, antolakuntzan esku hartu zezakeen eta komertzio txikia defendatu. Hitza ez betetzeaz gain, ez zuen zama lanetarako arautegia ezarri. Ilegalki eman zuen lizentzia. Zergatik?

Arkupetik Eroskiren plan orokor, plan partziala eta lizentzia legez kanpo dagoela uste dugu, besteak beste 2012an onartua izan zen plan orokorra berregin baitzuen. Gure ustetan, plana eta lizentzia legez kanpokoak deklaratu daitezkeenez, hori saihesteko berri- zuten plan orokorra. Gainera, Orioko merkatarien interesen aurka doa.

Partikularren onurarako egindako

proiektua dela begi bistakoa da. Arazoa larria da. Obrak aurrera doaz, epaitegiak ez baitu aurreikusitako hauek etetea. Horrek ez du esan nahi lizentzia legezkoa denik. Orioko Udalak berriz ere oriotarren dirua xahutu baina lehen, tribunaleko behin betiko sententziak zer dioen ikusi beharko da. Lizentzia legez kanpoko dela deklaratu babiliz, Udala izango da horren arduraduna eta indemnizazio bat ordaintzera derrigortua izan daiteke; beti bezala, oriotarren kontura. ■ **Arkupe elkarte**.

Orioko Correoseko zuzendariak Udalari

Orioko Correoseko zuzendari gisan, Udalari eskerrak emateko beharra sentitzen dut. Oriotar gehienok jakin go duzue San Nikolas kalean dagoen Correosko bulegoa eraberritu dela, baina ziuurrenik jakingo ez duzuen ondorengoa da: lan horiek irauten zuten bitartean posta zerbitzua Zarauzko bulegora eramateko asmoa zegoela.

Asmo horrek herriari kalte handiak ekarriko zizkion. Zuzendari gisan ez zitzaidanez batere egokia iruditzen, alkatearekin eta zinegotzi batekin harremanetan jarri nintzen. Udalak zituen aukerak ikusi ondoren, posta zerbitzua emateko asmoarekin, Itxas Etxean daukan lokala utzi zigun ezere truke. Ia bi hilabetez bertan eduki dugu bulegoa, Zarautzera joan gabe.

Lerro hauen bitartez hau adierazi nahi dut: herriari eta baita posta zerbitzuko langileei egin diguzuen mesedeagatik, eskerrak eman nahi dizkiot Udalari eta bereziki Beñati. Oso erraza egin zait berarekin harremanetan jartzea, eta hori eskertzekoa da.

Eskerrik asko bertan izan garen bitartean Itxas Etxeko zerbitzuen langileei eta erabiltzaileei -Eguneko Zentroa, Kofradia, ile-apaindegia eta Osakidetza-, gu bertan izateagatik beren egunerokoa nahikoa aldrebesten genuelako eta, hala ere, inolako arazorik gabe moldatu direlako. Eskerrikasko guztiei. ■ **Marilu Arruti**. Orioko Correoseko zuzendaria

Landare azokarako boluntarioak behar dira

Apirilaren 26an eta 27an Aian egingo den Landare Berezien Azokarako boluntarioak behar ditugu. Izena eman nahi izanez gero 943 83 53 89 telefonora dei egin edota iturraran@gipuzkoa-mendizmendi.net helbidera mezua bidali. ■ **Iturraran Parketxea.**

Bidegorria zertarako?



KARKARA lagun batek bidali digu goiko argazkia. Orio herrian bidegorria egin berri badute ere, erabiltzaileek errepidetik joaten jarraitzen dutela salatu nahi izan du.

Aiarrei deialdia

25 urte egingo ditu KARKARAK datorren ekainean, Sanpedrotan. Egun handia da guretzat eta aiar eta oriotarrekin elkarbanatu nahi dugu. Ospakizuna herriarrekin batera antolatzeke lehen bilerak egin ditugu Aian. Apirilaren 7an, astelehenean, arratsaldeko 19:00etan, egingo dugu hurrengoa, Aiako Kultur Etxean. Bertaratzeko gonbita egiten dizuegu, hortaz, KARKARATIK. ■ **Karkara taldea**

ZORITXARRAKI

Partaidetza eskasa

Herriarren partaidetza eskatzen diren bilerak eta ekitaldiak asko dira. Zerrendatu ezker luzea izango litzateke zerrenda. Hondartza garbiketa, aurrekontuei buruzko bilera irekia eta Etxeluze gaztetxea dira adibide batzuk.

Publiko ezberdinei zuzendutako eta helburu ezberdina duten proiektuak dira, baina guztiek behar dute herriarren parte hartzea eta babesa. Guztiok esfortzu txiki bat eginez gero, aurrera pauso handia emango genuke.

Hortaz, oraingoan zoritxarra dena biharko egunean zoriona izan dadin, partaidetzaren aldeko deia egingo diogu Orio herriari.

JAIOTAKOAK

- Amir El Maimauni El Ghailani, martxoaren 6an.
- Noa Segurola Garate, martxoaren 5ean.
- Lur Aranzabal Padrones, martxoaren 8an.
- Malen Ayucar Aizpurua, martxoaren 10ean.
- Gerexi Eizaguirre Iruretagoyena, martxoaren 11an.
- Bidarte Iglesias Landa, martxoaren 12an.
- Xabier Erauskin Ortega, martxoaren 19a.

EZKONTZAK

- Ez da ezkontzarik egon

HILDAKOAK

- Feli Veramendi Lacunza, Zarautz, otsailak 26, 81 urte
- Jose Luis Domingo Martinez, Orio, martxoak 3, 71 urte
- Guadalupe Uresberueta Otxotorena, Orio, martxoak 7, 77 urte.
- Martina Uranga Ayestaran, Donostia, martxoak 19, 86 urte.
- Maria Azkue Korta, Orio, martxoak 23, 88 urte

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

Erronkaz erronka eta txiriz txiri



Olatz Artola

“Animo ohiuak izan ziren Kirol Erronkaren doinu; kirolariak, maisu; eta Orio, gailendu.”

Erronkaz betea etorri da martxoa. Lehena, Orio eta Aia herriek KARKARARI botatakoa, agendan zuri geratu den egunikez baita izan. Hilaren hasieran, Inauteriak. Euripean lotsak moztortzearen erronka bikain gainditu zuten oriotarrek; goitik behera mela-mela eginda egon arren franko dantzatu zuten *Ai ene!* taldearen doinupean. Animo ohiuak izan ziren Kirol Erronkaren doinu; kirolariak, maisu; eta Orio, gailendu. Irabazleak Aiako Mendi Lasterketako partaideak, aldapan gora eta behera ibili baitira, 700 metroko altuerara ailegatuz.

Lasterka morez jantzitako 3.500 emakume, tartean 25 oriotar eta 5 aiar. Berdintasunaren aldeko aldarria eginez Donostia zeharkatu zuten martxoaren 8an. Idiek, ordea, Aiako dema tokia zeharkatu dute, alderik alde. Lehen aldiz Euskadiko Kintopeko Idi probak egin dira eta ikuskizun ederra eskaini dute.

Ikuskizunen topaleku Orioko Kultur Etxea, *Ta oainze?* antzerkiaren eta Niko Etxarten kontzertuaren lekuko izan baita. Antzerkirako gonbidapenak alde zuzenetik agortu dira eta abeslari zuberotarrak ere antzokia bete du. Rock and Roll melodiei Danbolin Musika Eskolako ikasleen melodiek hartu die lekukoa, eta nola gainera. Martxoako azken astean, astelehenetik ostiralera, kontzertuak eman eta eman aritu dira: 7 guztira.

Aste horretan, zortzigarrena, Kilometroak-ek antolatutako emankizuna; Gabrielen lekura eramane nahi zaituen sentikaria. Artistaz osaturituko taldea: Andoni Egaña, Rafa Rueda eta Ainhoa Alberdi, besteak beste. Artistak ere kilometroetako kantan parte hartu dutenak. Herritar, ikasle, irakasle: guztiak sortzaile fin. Eta fin geratu dena, hondartza. Txoko txikiena ere garbitu dute, guztion dena guztion gozamenerako prest. Txukun. Bertaratutakoei eskerrak eman eta etxean geratutakoei dei egin die antolatzaileek, guztion esku baitago bere bizirautea.

TS fundiciones enpresakoek, aldiz, jabeiei egin die deiadarrak. Akzionisten arteko gerragatik, enpresa itxi eta guztiak kaleratuko baitituzte; 20 oriotar kale gorrian geratuko dira. Egoera mikatza salatzeko Donostiako epaitegira joan dira langileak. Txooooo! Jubilatuak sagardotegira egin dute txangoa, baina mikaztu ordez goxatu egin dira. Txiri eta txiri artean eman diete agurra martxoari.

Erabilgarria iruditzen zaizue Ibaiondon egiten ari diren bidegorria?



“Ez dute pentsatu ondorioetan obra egiterakoan”

Anibarko portutik hondartzaraino bidegorria egingo balute tarte hau egitea ondo iruditzen zait. Nonbaitetik hasi behar baita. Guri tokatu zaigula? Ados. Baina momentuz soilik tarte honetan egin dute, eta hemen beharra ez dago. Beharra moilan eta Arostegi parean dago.

Negozio moduan ondorio txarrak ekarri dizkigu. Bigarren ilaran aparkatzea gaizki egon arren, hori egiten zuten bezero asko genituen. Orain hori ezinezkoa da, errepidea estua geratu baita. Zabor-biltzaileen kamoia ere ez da sartzen, ezta suhiltzaileena ere. Zerbait geratuz gero, zer egingo dute? Nire ustez ez dute hori guztia pentsatu.

Ainhoa Fernandez

Dendaria



“Bidea estutu izanak arriskuak ekar ditzake”

Bidegorria egitea ondo iruditzen zait, hori bai, dena jarraian eginez gero: Anibarko portutik hondartzaraino. Puska bat besterik ez dute egin. Orain arte bizikletek espazio dezente zuten inguru horretan, hortaz, ez du hobekuntzarik eduki. Hondartzara joateko erabiltzen da bidegorria, beraz, moilatik hondartzaraino jarraitu beharko luke.

Bestalde, bidea estutu egin da eta toki gutxi dago. Kotxea aparkatzen baduzu, autotik ateratzerakoan kontuz ibili beharra dago, arriskutsua baita. Lehenago aurretik eraman baditu ispi luak, orain are errazagoa da hori gertatzea.

Joxe Ramon Urdangarin

Arrantzalea



“Jarraipena izan behar luke bidegorriak”

Kofradi zahar ingurua, Arostegi ingurua, da bizikletentzat dagoen gunerik zailena. Ni Anibalgo portuan bizi naiz, eta orain arte espaloi handia zegoenez espazioa zegoen bizikletan ibiltzeko. Hortaz, arazoa ez dago hor baizik eta Arostegiko bihurgunean. Bidegorria egitea ez zait gaizki iruditzen, aurkakoa, baina jarraipena izan beharko lukeela uste dut. Umeek ezin dute orain portutik hondartzarako bidea bidegorrian egin, eta hori izango litzake egokiena.

Hondartzan badago bidegorria, tartean falta da. Umeek errepidera sartu behar izaten dute eta hori arriskutsua da.

Alazne Arrillaga

Administraria



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

“Traba asko izan ditugu eta lorpen handia da DBH martxan ikustea”

Juanjo Zubizarreta

Zaragueta Herri Eskolako zuzendaria

Otsailaren bukaeran inauguratu zuten Zaragueta Herri Eskolan DBH. 2 urtetik 16ra bitarteko ikasleak hartzeko prest izango da aurrerantzean Orioko eskola publikoa.

L. BERASALUZE

1996az geroztik hainbat saiakera egin ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari ateak ireki dizkio azken ikasturte honetan Zaragueta Herri Eskolak. Juanjo Zubizarreta zuzendari duela, oraintsu inauguratu dute eskolako etapa berria, estreinako promozioko ikasleek pasa den irailean hasi baziren ere eskolak hartzen.

Nola gogoratzen duzu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailko ordezkariak zuten proiektuari baiezkua eman zioten egun hura?

Lehenik eta behin, eskola handitu beharra zegoen Hezkuntza Sailak aurrera egiteko baimena eman ahal izateko, eta Orioko Udalarena da horretarako eskumena. Ikastetxeak sei gela gehiago behar zituen: DBHko ikasturte bakoitzeko gela bat eta baliabide jakinetarako beste bi, laborategia eta teknologia-gela hain zuzen ere. Udalak lan horiek egiteko Antia enpresa kontratatu zuenean, eskola handitzeko nahia benetakoa zela ikustean alegia, orduan eman zigun baiezko borobila Hezkuntza Sailak.

Bidean traba dezente aurkitu ditugu eta momentu hartan lorpen handia iruditu zitzaidan. Otsailean eginiko DBHko etaparen inaugurazioan ikusi dut lorpen hori islatuta. Behin abiatuta, normaltzat hartu dut dena, bestelako garrantziarik eman gabe; martxan gaude eta goazen aurrera! Inaugurazioak, alde horretatik, indartu egin du lehen proiektu genuena eta orain errealitate dena, publikoki errekonozimendua eman baitio.

Inaugurazioak zer nolako gorputza utzi zizun?

Hasiera batean urruti samar ikusi nuen, baina Udaleko hezkuntza zinegotziarekin hitz eginda ekitaldia egin behar zela entzunda, prestaketekin hasi ginen: nola egin, zer egin, zein gonbidatu... Kezka eta ardua piska bat bagenuen, eta urduritasuna, dena ondo egin nahiak ekartzen duena.

Ekitaldia borobiltzeko oroigarriren bat jarri nahi genuen ikastetxearen atarian. Horren harira, Iñaki Iturainek inaugurazio ekitaldirako bereziki egindako bertsoa oso borobila iruditu zitzaigun, eta huraxe zintzilikatu dugu eskola-sarrean. Azken batean, oso ondo adierazten eta azaltzen ditu DBHren eta gure eskolaren ezaugarriak.



Zubizarreta DBHko inaugurazioan. KARKARA

Hasiera batean DBH berriak Aiako ikasleak hartu behar ziotuen. Gerora aldatu egin zen baldintza hori.

Zarauzko Lizardi institutuan gainezka zeuden orduan. Hezkuntza Sailak hura handitu egin nahi zuen, baina Lizardiok berek ez zuten nahi, jadanik nahikoa handia bazela argudiatuta. Egoera hark eta gure eskaerak bat egin zuten denboran eta irtenbide gisa, Aiako ikasleak Zarauztik Oriora bideratzea proposatu zuten. Horregatik, gurean eraikin berri bat altxa eta gure DBHk bi lerro izatea aurreikusitua Hezkuntza Sailak.

Aiarrekin harremanetan jarri ziren, baina haien nahiago izan zuten Zarauzko institutu publikora joaten segi. Horrenbestez, lerro bakarreko DBHa onartu zuten Zaragueta-rako.

Bestalde, eraikin berria egiteko alde guztien baiezkoa behar zen. Ikasle jarria eta finantzazioa bermatuta izatea nahitaezkoa zuten eta, krisi garaian egonda, diru iturriari begiera ere ez zen oso aldeko egoera.

Eta ikasle kopurua handituko balitz?

Lerro bateko DBHrako nahikoa dugu daukagun espazioa.

“Behin abiatuta, normaltzat hartu dut dena, bestelako garrantziarik eman gabe; martxan gaude eta aurrera goaz!”

ELKARRIZKETA

“Martxa ona ikusten diot DBH berriari. Irakasleak etapa berrian murgilduta dauzkagu eta konfidantza osoan, lana ondo egiten ari garela uste dut”



Dena den, bi lerroko bost maila ditugu dagoeneko eta horiek gorantz egin ahala, eta lerroak sendotuz gero, espazio gehiagoren beharra izango genuke. Bi urtera begira moldatu gaitzke, LHko 4. mailan baitaukagu bi lerroko lehen ikasturtea. Gerora begira beste irtenbideren bat aurkitu beharko litzateke. Momentuan Udalarekin eta Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarrita gaude kontu hori dela eta.

Lehen ikasturtean 18 ikasle ditu DBH1ek. Zer balorazio?

Hasiera batean 15 ikasle genituen. Ikasturtea hasita beste hiru etorri zaizkigu, azkena oraintxe bertan. Eta martxa ona ikusten diot. Irakasleak etapa berrian murgilduta dauzkagu eta konfidantza osoan, lana ondo egiten ari garela uste dut.

Hiru urtera osatuta geratuko zaizue DBH, 1 go mailatik 4.era, gutzia ikastetxe beraren antolamendupean. Horretan aurrenekoak zarete Gipuzkoan. Orain arteko jardunari erreparatuz, zertan eragingo dizue?

Bi urtetik 16 urtera arteko eskaintza bermatuta duen Gipuzkoako ikastetxe publiko bakarra gara, bai. Zuzendaritza bakarra izango dugu, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ordezkariaren bat, izan ikasketaburuorderen bat edo

antzeko figuraren bat, sortu beharko dugu etapa ezberdinen arteko koordinazioa egiteko. Barne antolakuntza aldetik hori.

Horrez gain, zenbait ekintza guztiok elkarrekin egingo ditugu, baina ikasleen arteko adin ezberdintasunari begiratu-ta, argi dago DBHkoek bere aldetik ere egingo dituztela beste hainbat jarduera. Aldaketa horietara guztietara irekita egon behar dugu guk.

Zuzendari gisa zein duzu hurrengo erronka?

Erronka asko daude, baina zazpi urte zuzendaritzan egin ondoren, ikasgelara bueltatzeko gogoz ere banago. Faltan botatzen dut hori. Hortaz, erronka horiei erreleboan datorenak heltzea espero dut.

Halere, agian Orioko herriari begira Orioko Herri Ikastolaren eta Zaragueta Herri Eskolaren arteko harremanak estutzen joateko lanketa bat ere egin daitekeela iruditzen zait. Elkarrekin ekimenak egin, etorkizunean gure herrian zenbat haur izango den aztertu eta biok ditugun baliabideen arabera, bi ikastetxeak ahalik eta ondoen moldatzeko banaketa egin, adibidez.



eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

arkitektura
herrikoberra 6, zarautz

Barja Agirresarobe Lopetegi
635 731 722



Hemengo haragia.
Etxeko produktuek: txipoki, odolki,
tsukorra, txorizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



AIRDATTA moda

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



UTZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03



kutxi
kafetegia
GOSARI GORDAK

Auzoaga 3, 20810 Orio
Tel. 943 83 13 11



GABON
TABERNA

Antsoaga
laster konbinarioa
Auzoaga 3

943 83 06 09



MIRANDA
AROTZ JARDU S.L.

laxtoa, ate, teilu, eskailerak...
behar diren auzo lanak
erregio diruzlagia

Urtiarra beku. T. +669 42 32 70 - ZARAITE



Portu
ERRETEGIA

Santia Eneka Auzoaga 29
943 83 34 34
20809 AIA-ORIO

bestak, burdinak, abelak
santia, erretze, erretze...

Santi Barranco aseguru agentea

Auzoaga 2, 2. kateia ORIO

Tel. 618 561 288 - 659 216 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE

Joana Murgiondo
Aseguru-agentea

ASEGURUAK

CCI
CASA, CIVIL, LAZARTE Y CIA, S.L.

Abeslari, 4-2. esk.
Tfnos: 943 13 46 07

ROSANA
ARRUTI
ARGAZKILARIA

2014ko
JAUNARTZEA

fotorosanaarruti@gmail.com
Aita Lertxundi, 26-Orio Telf: 943 835845

KOLON TXIKI
infantila
juleskies

Herrillo Errepublikita, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Orla Etorbidea 4, LASARTE-ORIO 943 37 17 33- 610 45 93 45



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel: 943 83 80 77
fax: 943 83 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Auzoaga Kalea, 65
20810 ORIO (Guzuzkiak)

PUBLIZITATEA

**sinergia**FISIOTERAPIA
IKERKETAIBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPO, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**Pelotari 5
943 83.00.34Zure Konfidantzaizko
Gertuko Tailerraardoak, urdalkiek, gaztak,
kontserbak, janari prestatuaketxeraino
eramaten ditugu

943 83 09 84

alfo lertxundi, 36
ORIOtelefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net**Orioko
Herri
Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

ASADOR
NIXARIO Euzko Gudari 2
Tel: 943 83 09 84libe
dietetika
elildadura arloko jarraitzaeusko gudariak 35 - ORIO
(Janari Kontseko katea)943 53 84 94 - 697 23 96 56
libe@meritxakguzman.com**ODITZ**Pintxoak, txakurak, txakurak
guztira ematen ditugu
tel. 943 53 00 89

Kinkindenda - Ume arropa

arginewww.laionet.com/argine
Tel: 943 13 46 8925etik DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN

**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

24 orduko zerbitzua

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.es
2010 ORIO

- ATAK INBIZITZEN DITUGU
- SARRAILA-XILINDRO ALDARAKAT
- ATAK IXTEKO MALDUNEN ALDARAKA
- KOMUNITATEBIZITZAKO ZERBITZUA

arkaitz taberna
orio

-Ogitartekoak - Pintxoak

-Plater konbinatuak

-Karta

-Terraza ederrarekin

-Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 83 16 57

Babesa eraso denean



Eider Goiburua



raintxe ospatu berri dugu martxoaren 8a, emakumeen eguna, instituzio publiko guztiek ospatu eta bultzatzen dutena. Ez al zain ironikoa iruditzen, Anuska?

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta Erakunde publikoek more kolorea bereganatzen dute gure gizartean emakumeekiko diskriminazio eta indarkeriari buruzko datuak emanez, baina, berek gauzatutako indarkeria aipatu gabe.

Legeak, bikote harremanetan ematen diren indarkeria kasuak bakarrik jasotzen ditu ideologia matxistaren marko barruan. Eta zer gertatzen da emakumeok bikote harremanetatik kanpo jasotzen ditugun sexu erasoekin? Eta heteronormatibitateak kanpora

“Emakumeon gorputza eta bizitza erregulatu nahi dute, gure erabakitzeko eskubidea bereganatuz”

egoteagatik ematen den indarkeriarekin? Indarkeria guzti hau ikusezina bihurtu eta erantzun instituzionalik ez ematea ez al da indarkeria?

Eta orain gainera abortuaren lege berria. Emakumeon gorputza eta bizitza erregulatu nahi dute, gure erabakitzeko eskubidea bereganatuz. Jakinda, lege honen ondorioak, Londres edo Frantziara abortatzera joateko dirua ez duten emakume askok era arriskutsu batean abortatzera eramango dituela, beren heriotza bideratuz. Emakumeok erabakitzen jarraituko dugu lege eta instituzioen gainetik, beti egin dugun bezala, baina kasu batzuetan, erabakiaren jabe izateko ondorioa heriotza izango da. Nor izango da heriotza hauen arduradun? Hori ere ez al da indarkeria instituzionala?



Anuska Esnal



ori, ez den ironia bakarrik, Eider! Bikote harremanetan ematen diren indarkerien erantzun instituzionalak ere badu bere mamia. Emakumearen autonomia eta burujabetzak izan behar luke pausu guztien jomuga. Isekaz, gutxiespenez eta irainez kolpatutako autoestimua suspertzeko.

Horren ordez, segurtasun sailean jarri dute gai honen erantzukizuna, konponbidea bide polizialean balego bezala. Salaketarik ezean, laguntza psikologiko eta kontsulta juridikoren bat egiteko aukera izango du erasotuak, beti ere klandestinitatean. Baina kitto!

Sistemak denuntzia jartzera bultzatzen du. Hortik, zurrumbilo judiziala hasten da martxan, beharrezkoa dena baina emakumea xahutzen duena. Batzuetan,

“Arazoaren errora joan ordez, hautsak alfonbra azpian gordetzen dabilta”

emakumeaz gain, ertzaintza aktibatutako duen bizilaguna edota parte eman duen herritarra. Horiek ere, ipurdi bistan geratzen dira sistemaren aurrean, beren burua identifikatu behar dutelako eta zurrumbiloa martxan jarri, agresioa jasan duenaren gogoaren aurka – askotan – eta erasotzailearen jazarpenaren beldur.

Honek guztiak, emakumeari hartutako erabakiaren inguruko zalantzak piztuarazten dizkio eta oihuak entzuten dituen bizilagunak, gehiago inon ez duela ezer esango erabaki. Eta garrasiek, kontrolek eta astinduek lau pareten artean irauten dute.

Beste hainbat gaietan antzera, arazoaren errora joan ordez, hautsak alfonbra azpian gordetzen dabilzalako. Zaurietan, prozedura amaiezinen ozpina jarritz.



Onintza Aiestaran

Negu off eta udaberri on!

Nartxoaren 20an 17:57ean sartu ginen ofizialki udaberrian. Negua beste urte batzuetan baino epelagoa izan da, elurra ere ez da kostaldera iritsi eta gure mendiak eta larreak berde kolorez janzteko adina euri egin du.

Negu honetan itsasoko denboraleak izan dira, ordea, benetako protagonista. Zuek ez dakit, baina nik behintzat kontua galdu dut zenbat izan diren. Bata bestearen atzetik etorri dira, eta kaltea handiak eragin ditu euskal kostaldean, baita gurean ere.

Kanpoko *puto muroari* zati bat kendu dio, baina hondartza alboko barra izan da, dudarik gabe, kaltetuena. Olatuen indarrak aurretik eraman du barraren zati bat, eta berreraikitzeke denbora eta dirua beharko dira. Hondartzako pasealekuko tabernatan ere ura sartu da eta hondarra hainbat txokotan agertu da.

Negua joan da, eta eguzkia pixka bat berotzen hasi da. Ni

deseatzen nago armairutik *neguko arropa* kendu eta udaberri-uda garaikoa ateratzeko. Izan ere, zuhaitzek edo landareek egiten duten bezala guk ere gure *jantzia* edo kanpoko itxura aldatzen dugu.

Ez dakit zer iruditzen zaizuen, baina ni udaberriro *zaharberritu* egiten naiz. Bai, neguko iluntasunak albo batera utzi eta udaberriko energiarekin indarberritu egiten naiz. Eta zaharberritu diot, udaberritik udaberri zaharrago naizelako.

Orioko kaleetan ere zaharberritze prozesu hori nabaria da; izan ere, gure kaleak txukuntze eta egokitzen ari dira; bereziki goraipatu nahi ditut Ibaiondoko bidegorri berria eta Kultur Etxeko sarrera berria.

Bada, ni neu hasi naiz udarako prestatzen eta, antza denez, Orioko herriak bere aurpegirik onena eman nahi du sasoi horretan. Hasi zuek ere prestatzen, eta udaberri on danoi!

Orioko kaleetan ere zaharberritze prozesu hori nabaria da; izan ere, gure kaleak txukuntze eta egokitzen ari dira; bereziki goraipatu nahi ditut bidegorria eta Kultur Etxeko sarrera.





Eneko Sanz

Gure historiari so eginez

Konferentziak XVIII. mende hasieran sortu eta mende amaieran kontsolidatu ziren, ezagutza ofiziala bermatu zitzaionean. XIX mendean izena kontsolidatu zen.

Nahiz eta euskal lurraldeetako Aldundiek erabateko esku-hartzea zuten beren menpeko eskualdeetan, noizean behin probintzia bat baino gehiagori eragiten zieten arazoan inguruan eztabaidak sahiesteko egiten zituzten hitzarmen puntualak. XVII. mendean Bizkaia eta Araba, baita Araba eta Gipuzkoako komisionatuek, helburu ezberdinetarako akordioak sinatu zituzten jarraikortasun eta finkotasunik gabe.

Sistema hori XVIII. mendeko azkeneko herenean aldatuz hasi zen, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek egingo zituzten koordinaziorako bilkura hauei beste izen bat ematen hasiko zaie: konferentziak. Izenarekin batera, izana ere aldatzen da; ordura arte puntualak ziren Aldundien arteko akordioak instituzionalizatu egiten dira.

Konferentziak probintzia guztientzako interes komunekoak ziren, asuntu politiko-administratiboetaz aritzeko eta akordioetara ailegatzeko. Bultzatzaileen artean RSBAP izango dugu. Elkarrekin honek euskal probintzien arteko elkartasuna eta ekintza koordinatuaren beharra azpimarratu zuen; hortik RSBAPen leloaren arrazoia: *Irurac-Bat*.

1793an konferentzia hauetako organizazioa, funtzionamendua eta helburuak finkatu ziren. Agirreazkuenaga Zigorragak deskribatzen duen moduan, XIX. mendean zehar Bartzar Nagusiek izendatzen zituzten komisionatuak edota Aldun nagusiak konferentzietara joaten zirenean, probintzia bakoitzeko kontsultore batekin lagunduta etortzen ziren.

1850 urtetik aurrera, konferentziak kontsolidatu egin ziren; instituzioaren indartze edo sendotzearekin batera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakunde politikoek elkarrekin jarraitu beharreko politikaren ardatza ezarriko dute eta ohiko zerbitzu administratiboak ematen hasiko dira. Foruak kendu zituztenetik, eta kontzertu ekonomikoaren garaia hasten denean, Aldundi bakoitzeko diputatuak izango dira konferentzia hauetara joango direnak.

1836 eta 1876 urteen arteko epea izan zen konferentziak pisu handien izan zuten garaia. Urte hauetan eratzen ari diren Espainiako estatu liberalaren barruan, eta horien adierazlea zen konstituzio politikoaren erredakzioan, foralitatearen eskubide historikoa errespetatzeko klausulak sartzeko ahaleginak ziren. Honek birmoldaketa sakona exijitu zion Aintzinako Erregimenetik zuzenean indarrean zetozen foralitateari, eratzen ari zen estatu eredu berrira egokitu ahal izateko. Etapa honetan zenbat? 202 egin ziren.

Konferentzia hauek kontsolidatzeko behar zuten azkeneko elementua XVIII. mendearen bukatzearekin batera etorriko da. 1800an, erret baimena lortuko dute koroaren aldetik. Honek ezagutza ofiziala bermatu zion probintzien gaineko koordinazio organu honi. XIX. mendean izana ere kontsolidatuko zaie: *Conferencia de las tres provincias hermanas Irurac-Bat*.

“Mediku asko ari dira aztertzen Tai-Chiaren eraginak eta onurak”

Gareth eta Jenny Ross

Tai-Chi eta Ingeles irakasleak

Gareth irlandarra da jaiotzez eta Jenny Ingalaterrakoa; Gabon aurretik Aian bizi dira seme Samuelekin. Garethek Tai-Chi klaseak ematen ditu, eta ingeleseko ikastaroa prestatzen ari dira udako.

MIRIAM GARCIA

Denbora gutxi daramate Aian, baina gustura bizi dira bertan, *lorategi erraldoi batean bezala* sentitzen baitira. Ingeleseko irakasleak dira biak Donostian, eta Garethek Tai-Chi klaseak ematen ditu Aian ostiralero.

Nola iritsi zineten Aiara?

Jenny: Denbora gutxi daramagu Aian. Lehen Donostian bizi ginen, han ere oso gustura, baina lehen ere Aiara etorritakoak ginen eta asko gustatu zitzaigun. Abenduan hemen etxe bat alokatzeko aukera sortu zitzaigun; hamasei hilabeteko umea dugunez, bizitzeko leku egokia iruditu zaigu. Biok hazi gara herri txikietan eta Samuelentzat ere horrelako giroa nahi genuen. Herri txikiek askatasun handiagoa ematen diote umeari hiri handiek baino.

Ongi hartu zaituztete herri txiki honetan?

J: Oso ondo, jendea oso jatorra eta irekia da gurekin.

Gareth: Eta oso abegitsua. Hasieran esaten ziguten inguru honetako jendea itxia zela baina geuk ez dugu horrelakorik ikusi. Kontrakoa baizik.

J: Gainera guk ez dakigu euskaraz eta jendea pazientzia handia izaten ari da gurekin.

Euskara ikasten arizarete?

J: Bai, pixkanaka ari gara baina ez da erraza. Sam eskolara joaten hasten denean berak ez du arazorik izango, eta geuk ere orduan gehiago ikasiko dugu.

Ingeleseko eta Tai-Chi ikastaroak ematen dituzue zuek

J: Bai, ingelesaren ideia gure lanbidetik sortu zen. Urteak daramatzagu ingeleseko klaseak ematen. Ni 2000. urtean hasi nintzen. Espainian, Turkian eta Erresuma Batuan eman ditut.

G: Ni 1994. urtean hasi nintzen Tai-Chi klaseak ematen. Espainian bizitzen jarri nintzenean berdina egiteko intentzioa nuen, baina ez nekien hitzik gaztelaniaz eta ezinezkoa izan zen. Orduan ingeleseko klaseak ematen hasi nintzen. Horrek gaztelania ikasteko aukera eman zidan eta Tai-Chi klaseekin hasi ahal izan nuen.

Hemen Aian ematen duzue klaserik?

J: Berez Donostian egiten dugu lan, baina udako ingeles ikastaroa egin nahi dugu, uztail inguruan. Badakigu hemendik jendea Oriara edo Donostiara joaten dela ingeleseko klaseetara, eta guk zerbait lokalagoa eskaini nahi diegu. Bi bilerara prestatu ditugu interesa dutenak ezagutu gaitzaten, martxoaren 28an eta apirilaren 4an 17:00etan Kultur Etxean.

Eta Tai-Chi?

G: Tai-Chi klaseak ostiralero ematen ditut kultur etxean. Benetan harritu nau bertako jendeak duen gogoia, adin guztietako jendea etortzen da. Aurrerago Tai-Chi erretiro bat egin nahi dut hemen Aian, mundu mailan ezagunak diren maisuak gonbidatu nahi ditut.



Gareth, Jenny eta Samuel Ross-ek hilabete batzuk daramatzate Aian bizitzen. KARKARA

“Mugimenduak gorputzarentzat onuragarriak dira eta sendatzen laguntzen dute. Onena da behin oinarria ikasita, bizitza osorako daukazula Tai-Chia.”

Zertan oinarritzen da Tai-Chi-a? Nola definituko zenuke?

G: Oso zaila da, bakoitzak bere ikuspuntua du Tai-Chiaren inguruan. Jendeak duen ideia beti bera da: oso mantsoa dela, mugimendu motelak eta erlaxazio pixka bat, eta kitto. Baina hori berez denaren %10a inguru izango da. Lehenik eta behin borroka-arte bat da: egiten den postura bakoitzak aplikazio martziala dauka. Gero, mugimenduak daude, gorputzarentzat onuragarriak direnak eta sendatzen laguntzen dutenak. Eta Tai-Chiaz gain, tartetxo bat egiten dugu klasean meditazioa lantzeko.

Zenbat jende joaten da klaseetara?

G: Hamar pertsona inguru, ez dut jende gehiago nahi. Talde handiekin beste dinamika bat hartzen da eta zailagoa da bakoitzari behar duen arreta ematea. Kontua da nahiz eta mugimendu motelak egiten diren, ez badakizu ongi zergatik egiten den bakoitza, kaltegarria izan daitekeela gorputzarentzat. Jendea gustora dago; asteroko klaseaz gain, beste egun batean elkartzen dira ikasleak Tai-Chi praktikatzeko.

Aian geratzeko asmoa duzue?

J: Bai, oso gustura gaude hemen. Umea ere eskolan matrikulatu dugu hurrengo ikasturterako. Gainera bio mendia eta natura asko gustatzen zaizkigu, eta hemen lorategi erraldoi batean bezala bizi gara. Nahiz eta Donostiara egunero joan behar dugun, bizi-kalitatean asko irabazi dugu.

ARGAZKI ERREPORTAJEA

Saikola auzoa . IBAN EGIGUREN

Lagunarteko erromerietan dantzarako alpargatak

Usurbilekin muga-mugan dago Saikola. Aspaldian, alpargata fabrika bat zegoen bertan eta erromeriak ere egiten ziren. Eskusoinua eta panderoa hartu, eta dantzan aritzen ziren, lagunarteko giroan. Bizi-bizi zegoen Saikola. Urteen poderioz bizia galtzen joan zen, uzten.



Harrokak eta ur-emaria . IBAN EGIGUREN



Hegaztiak Saikolako lurretan . IBAN EGIGUREN



Landatutako zuhaitzak . IBAN EGIUREN



Ura igerilekua bailitzan, bare . IBAN EGIUREN

Eraberrituz, bizituz

Orioko arraunaren topaleku denak, azken boladako eraberritze prozesuari esker, ur-emia irabazi du. Arraunketarako egoera hobean dago, hortaz, Saikola. Makala ere landatu da bertan, egur biguina baita, ur inguruak eta hezetasuna behar dituena. Egokitzapenekin fauna eta flora irabazi ditu auzoak. Polita geratu da eta ibilaldiak egiteko paraje ezinhobeak daude, naturaz gozatzeko aukera ederra da, hortaz.

ARGAZKI MUNDIALA



Jubilatuak, oraindik gazte

Egun borobila igaro zuten jubilatuek. 12:00etako kanpai hotsak eman zioten hasiera Zaharren Babeslekuak antolatutako jubilatuaren egunari, meza nagusira joan baitziren. Hortik aurrera barre algarak eta txotx! ohiuak izan ziren eguneko sintonia. lehen parrafoa lehen parrafoa testua lehen parrafoa lehen parrafoa testua lehen parrafoa.

Agiña Errasti sagardotegian izan zuten bazkaria. Tripak bapo bete zituzten eta sagardoa ere dastatu zuten. Kanturako astia ere izan zuten, bazkalostean abesten aritu baitziren. Guztira 315 lagun bildu ziren eta jai giro ederrean ospatu zuten.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA



KARKARA

“Kosta egin zait Kanua ixteko erabakia hartzea”

Aizpea Zuloaga

Kanua Jatetxeko nagusia

Casa Ureta zena da egungo Kanua. Izena, osabaren ezizena. Getariko neskaren batekin haserretu, eta harek, *kanota* joateko esan omen zion. Kanota ez, Aian aski ezaguna den Kanua jatetxera joan zen osaba.

OLATZ ARTOLA

Eraikuntzak 353 urte ditu gutxienez, zutabe bateko idatziak 1661. urtean jada bertan zegoela baitio. Jatetxeak, ordea, 150 inguru. Lau dira bertatik pasatako jenerazioak, eta bat, Kanuari lotuta hezi eta hazi den familia. Aian errotutako jate-txeak atek itxiko ditu apirilean.

Hasiera garaiak urruti geratu dira honezkero...

1661 inguruan jada zutik zegoen, pentsa. Nik betidanik eza-gutu dut Kanua, hemen jaio eta bizitakoa naiz. Gogoan dut gaztea nintzenean senide guztiak lanean aritzen ginela. Jatetxeaz gain harategia eta lotako lekua ere han genituen; medikuak eta irakasleak hemen atsedean hartutakoak dira.

Alokairuan izan ditugun urteak salbu, gure familiak eraman du Kanua. Aitona-amonek hasi zuten bidea jarraitu dugu ondorengoek.

Duela 150 urte hasitako bideari amaiera emango diozue.

Gogorra eta zaila izan da ixteko erabakia hartzea, zalantza asko eduki ditut. Penaz, baina apirilaren amaieran Kanua itxiko dut, lore azoka eta gero. Gure familiak hasitako bidea ez dut amaitzerik nahi, baina urteek ez dute barkatzen eta hau guztia bakarrik eramatea ez da erraza. Kanuari lotuta hazi eta hezi naiz, nire bizitokia izan da hau. Hortaz, ixtearekin batera gauza asko bukatuko dira niretzat, baita herriarentzat ere. Honenbestez, kanuak bizirik jarraitzea nahiko nuke, istorio askoko jatetxea baita.

Herritarrentzat ere galera izango dela diozu.

Bezeroekin harreman estua daukagu, jendearentzako bertakoa da, gertukoa. Herriko hainbat gauza burutzen diren lekua da Kanua: ospakizunak, zaharren bazkaria, mus txapelketak eta *xexiya*, besteak beste. Azken hau aspaldiko usadioa da, lehen beilatokira ez baitzen joaten. Familiarekin egoteko helburuarekin hasi zen, doluminak emateko, eta guk horrekin jarraitu dugu. Ohitura zahar horiek galdu egingo dira ixterakoan. Horrek pena ematen dit.

Saminduta dago, hortaz, Aiako herria?

Herritarrak penatuta daude, Kanua bere sentitzen baitute. Hanka motz geratuko da herria, kolokan, hainbat ekintza hemen gauzatzen baitira.

Bizi asko izan duen tokia dela e san daiteke, beraz.

Herriko jendeak asko erabili duen tokia da Kanua, etxekoa. Ohiko legez etortzen diren bezeroak dauzkagu, helduak gehienak. Gazteak, aldiz, kanpora joaten dira. Esaterako, gazteak direnean Zarautzeko eskolara joaten dira. Kanpotik, ordea, gero eta jende gutxiago etortzen da gauetan alcoholemia dela eta. Hala ere, ohiturak aldatu arren, biziz bete egon da Kanua. Agurra eman behar diogu Landare Azokaren ostean, baina oraindik zehazteke daukagu nola agurtuko dugun. Ibilbide luze honi amaiera jartzea egokitzen zaigu, baina Kanuak martxan jarraitzea nahi dugu.



Itzalean egon diren izarrak

Orion eta Aian historia egin duten emakumeak daude, kirol lorpen handiak egin dituztenak. **Ez dute bide errazik izan**, joeraren kontra joan behar izan baitute, emakumeentzat kirola desagokia dela uste baitzen.



TESTUA: IÑAKI ITURAIN ETA KARKARA
ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAIN ETA KIROL ELKARTEAK

2012ko Londresko Joko Olinpikoetan oriotar batek parte hartu zuen. Eta, jakina, handik bueltan herriak ongi etorri ondo merezia eskaini zion. Baina, hara! Orioko kirolaria ez zen arraunlaria; eta, hara! berriz, gazte hura ez zen mutila. Oriotar olinpikoa Oiana Blanco judoka zen.

Gauzak aldatzen ari dira pixkana. Joko Olinpiko horietan bi euskal kirolarik eskuratu zuten domina bana. Biak neskek izan ziren, batek piraguan eta besteak borrokan.

Oztopoz beteriko bidea

Emakumeak ez du inoiz bide errazik izan kirolaren munduan, era guztietako aurreiritzien kontra jokatu behar izan zuten horretan ausartu eta abiatu ziren neskek. Mende eta urte askotako ustea izan da kirola ez zela egokia emakumea-

rentzat; baina uste hori ez da lau txororen kontua izan, Pierre de Coubertin olinpismoaren aitak berak, kirol alorrean eza gutzen den esaldirik famatuena asmatu zuen berberak –kirolean garrantzizkoa ez da irabaztea, parte hartzea baizik–, ez zuen begi onez ikusten emakumearen parte hartzea Olinpiadetan.

Aro Modernoko lehen Olinpiadak 1886an jokatu ziren Atenasen. Emakumeak, lehen aldiz, 1900an hartu zuen parte: Pariseko Jokoetan. Emakumearen lehen parte hartze hori erabakitzeke orduan, Pierre de Coubertin-ek bereak eta bi egin zituen hura gertatu ez zedin. Bera da honako beste esaldi honen aita ere: Ni berez emakumeak jokoetan parte hartzearen kontra nago, erabaki hori nire gogoaren kontra hartu da. Hil arte aurre egin zion emakumeak joko olinpikoetan parte hartzeari.

Zorionez, hala ere, Coubertin ez zen berearekin atera eta Pariseko Olinpiada hura emakumea eta kirolaren praktika uztartu zituen prozesuaren abiapuntua izan zen.

ERREPORTAJEA



Hala ere, 48 urte pasa ziren euskal emakume batek lehenengo aldiz olinpiada batean parte hartzeko, 1948an izan zen, Londresen Ibone Belaustegigoitia bilbotarrak parte hartu zuen, tranpolin saltoetan. Mexikon bizi zen bera, gerra hasi zenean familia hara erbesteratu baitzen.

1988an gertatu zen aurreneko aldiz, Euskal Herritik Joko Olinpikoetara emakumeak joatea. Seulera joan ziren Maite Zuñiga eta Blanca Lacambra atletak. Haiek izan ziren hemenengo emakume aitzindariak. Olinpiada hartan gure herriko mutil batek ere parte hartu zuen, Ibon Urbietak, arraun- an.

Bitxikeria moduan aipagarria da 1965 arte emakumeak ezin zirela lehiatu bizikletan. Ordura arte uste baitzuten, emakumeak, bizikletan ibiliz gero, ama izateko gaitasuna galduko zuela.

Nesken zailtasunak kirolean

Neska asko abiatzen dira kirol batean edo bestean, baina urte gutxira arrazoi batengatik edo besterengatik utzi egiten dute alde batera kirol horren praktika. Oztopo eta traba guztiak gaindituz, ahalegin horretan saiatu direnentzako moduko bertsoa kantatu zuen Maialen Lujanbiok Irungo kiroldegian 2003ko abenduaren 14an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapela jantzi ondoren azken agurrean:

... *baina behin behar ta omendu behar/gaur emakume guztiak/ta bereziki zernahi bidetan/abitu ziren gutxiak/gizarte honek bere ametsen/erdibidean utziak.*



“Pariseko Olinpiada hura emakumea eta kirolaren praktika uztartu zituen prozesuaren abiapuntua izan zen.”

“Neska asko abiatzen dira kirol batean edo bestean, baina urte gutxira utzi egiten dute.”

ZENBAKIA

2012

Oriotar emakumea Olinpiar Jokoetan. Oiana Blanco judoka izan zen. 48 kilotan lehiatu zen eta munduko judoka onenaren aurka -Tomoko Fukumi- galdu zuenez, Londresko Jokoetatik kanporatu zen.



Egun hartan jantzi zuen, lehenengo aldiz, bertsolaritzaren historian emakume batek txapeldunaren txapela lehiaketa ofizial batean.

Atletismoko neskek: korrika eta saltoka

Donostiako Real Sociedad taldeak argazki-erakusketa bat jarri zuen 2013ko otsailean Bulebarreko Kutxaren aretoan, nesken kirolari buruzkoa, emakumeak txuri-urduinez izenpean. Erakusketari buruzko erreportaje batek hauxe zioen:

Frankismo bete-betea, erregimenak baimena eman berri-tan neskek atletismoa egiteko, Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxieneko jautzia lau metrokoa zen, justu.

Klubean norbait agertu zen esanez nire herrian badira hiru neska lau metrotik gora saltatzen dutenak. Ostegun batean Anoetara eraman zituzten eta hurrengo igandean Marivi Tarantinok parte hartu zuen Espainiako txapelketan Errealaren kolore txuri-urdinekin, eta arrakastaz nonbait.

Oriokoak ziren hiru neska haiek, atletismorako zaletasuna zutenak. Erakusketako argazkietan ageri ziren: Maribi Tarantino eta Mirentxu eta Arantxa Campos ahizpak.

Kirol femeninoa Orion

1970eko hamarkadan Zaragueta eskolan Joakin Aranburu maisuak martxan jarri zuen saskibaloian nesken talde bat.

Garai hartan Orion neskek ez zuten kiroltik egiten, saskia enkarguetarako bakarrik erabiltzen zen, horixe esan zien ama batek baino gehiagok bere alaba saskibaloian jokatzen

hasi berriari: baina zer den saskibalo hori? Hobe hunake hik ere saskia hartu eta erosketak egitera joango bahintzanake!

Abiapuntua hori izanda, Orioko neskek maila harrigarri ona eskuratu zuten saskibaloiko lehiaketetan: hainbat urtetan Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten eta Espainiakoan parte hartu. Espainiako eta Euskadiko taldeekin aritzen da egun Sara Iparragirre gaztea, Ikastolako jokalaria. Saskibaloiak izandako beherakadaren ostean, gora eta gora ari da Ikastolako taldea.

Nesken arrauna

Ia XXI mendean sartu arte, emakumeak Orioko arraunean jokatu duen rola eginkizun sinbolikoak egitera mugatu da: banderen amandrea izan ohi da, arraunlarien ongi etorriak behar bezala ospatzeko edergintzan aritu izan dira, herria eta beren buruak apainduz, edota arraunlarien erizain eta arropa-garbitzaile lanak eginez.

XX mendearen bukaera aldean hasi ziren neskek, lehenengo aldiz, arraunean, lehiatzeko mailan behintzat. Hasierakoan artean dago Leire Alustiza. Leire izan zen lehenengo arraunean domina bat eskuratzen, 1987an izan zen, Mequinenzan, Espainiako txapelketan zilarra eskuratuta skiffean, kadeteen mailan. Aipatzekoa da, era berean, Ainhoa Gozategi, arraun egitea bere alderdi musikarekin bateratzen jakin zuena hainbat urtez.

1997an, Kristina Kortak munduko txapelketan parte hartu zuen Frantzian. Kristinaren lehengusu Eder Etxeberriak

ERREPORTAJEA



BESTE KIROL BATZUETAN

urrezkoa eskuratu zuen 1993an, infantiletan, Espainiako txapelketan, skiffean, eta 2002an, Italiako munduko txapelketan izan zen. Gaur egun mediku lanetan dihardu, kirolaren alorrean. Eva Mironesen kasua ere aipagarria da, izan ere San Juangoa izanagatik hainbat urtetan Orioren izenean lehiatu da, besteak beste Atenaseko Joko Olinpikoetan, 2004an.

Baina 2010 arte ez zen osatu koadrilarik Orion trainerua uretaratzeko. Urte hartatik aurrera, herriko nesken traine-ruak etengabe dihardu lehian, estropadaz estropada. Garai-penik handiena Orioko uretan lortu zuten 2012ko uztailaren leian, herriko estropadan, bandera irabazita.

Trainerua uretaratu zutenetik, handia izan da patroien dantza. Haien artean bi izan dira herriko neskek: Nagore Aparicio eta, batez ere, azken urteotan estropadaz estropada patroitzan sendotu den Nadeth Agirre. Berak eskuratu ditu Orioko nesken arraunak irabazitako lehenengo banderak.

Nadethek, elkarrizketa egin genionean, gogora ekarri zituen nesken koadrila osatzeko izan zituzten zailtasunak eta, oraindik ere, tarteka entzun behar izaten dituzten nesken arraunaren kontrako hitz pozoitsuak. Nolanahi ere, pozik dago taldeko giroarekin eta, zailtasunak zailtasun, taldeko neskek aurrera segitzekotan direlako.

Denboraldi honetan nesken helburua sailkatzea da, bai Euskotren Ligan, bai Kontxan. Ligara pasa ahal izateko, lehenengo lau postuetan sailkatu behar dute Orioko neskek. Lortu ezker, ligan emaitza hobetoak lortzea da beraien xedea, koska bat gorago joatea.

Saskibaloiak utzitako hutsunea softbolak hartu du. Oinarriz sendoa lortu du bai Orion, baita Euskal Herrian ere. Emakumeen kirol moduan ikusten da, garai batzuetan talde mixtoa eduki arren. Euskal selekzioaren izenean Kubara joateko aukera izan dute bi oriotarrek.

Indarra hartzen ari den beste talde kirola da futbola. Garazi Iturzaeta eta Olatz Mujika dira neska gaztetxoaren entrenatzaileak eta Zarautz taldeko jokalaririk onak. *Futbolearen berdintasunerako bidean pausoak eman diren arren, mutilek dena eskura dute. Guk, ordea, gauza arrunt bat lortzeko asko borrokatu behar dugu.*

Neska pelotariak, Eli Lasa kasu, beraien kabuz hasi behar izan zuten txapelketak proposatzen eta antolatzen, afizioa zabaltzeko asmoz. Zorionez, helburua lortu zuten.

Tatamia da emakume kirolariaren eguneroko borroka-aren lekuko Oiana Blancoren kasuan. Normaltzak ikusten duten arren ingurukoek bera, emakumea izanik, lau urtetatik judoan aritzea, emakume gutxi hartzen duten hau-tua dela dio, aurreiritzien erruz.

Idoia Etxeberria, aldiz, harriaren aurka lehiatzen da 14 urte zituenetik eta hasieran jendeak harriduraz begiratzen ziola aitortu du.

Adriana Campoy, ordea, bere denboren aurka, marka hautsi eta hautsi ari da igerian. Emakume kirolariak paper zaila duela aitortzen du: *etxeko lanak eta familia zaindu behar ditugu. Eginkizun horiez gain kirola egin nahi bada, guztiak uztartzea ez da lan erraza.*

OSPAKIZUNA



SAIOA CANO KORTAJARENA

Ongi etorri, Lur

Martxoaren 8an jaio zen Lur Aranzabal Padrones, Mikelen eta Silviaren alaba. Ordutik pozaren pozez dago familia, txikiarekin paseoan. Jende askok geratu ditu kalean zoriontzeko eta gutxi izan dira jaiotzaren egun bereziaz ohartu ez direnak: emakume langilearen eguna. Gurasoek esan digutenez neskatoa lasaia da eta osasuntsu omen dago. Beraz, ongi etorri Lur eta zorionak familia!

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Galtzaileen familientzat barru-barruan sartuta duten arantza bat ateratzeko modua izan da. Alde horretatik, oso harrera ona izan du proiektuak: familia horiek erakutsi dute interes handiena.”

Iñaki Iturain, Urola Kostako Hitza, 2014ko martxoaren 14a.

“Budak, adibidez, esaten zuen gizakia desio adiktiboetara prestatutako makina bat dela. Hain zuzen ere bizitzan hustu egin behar duela hortik. Ez zen, jakina, sustantziez ari.”

Jon Sarasua, Euskadi Irratiko Faktoria saioa, 2014ko martxoaren 7a.

Alustiza Autobusak
Autobusak Alustiza S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 25 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ESTELDICHETIK - URKINBATERRA 7:00 - 20:30
SANTZE ETXETIK - EGURKATIA 7:00 - 13:30

Maidor Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 - 20910 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODLOGIA ZENTROA

SU KIA
SU KIA

Ornagutegiaren... leku KOPA eta TOPAIL

- OILASKO EFREAK ERAMATEKO
- EOLINEKO MENJIA
- EOLIKARIAK
- OGIA

TEL. 943 571 190
LASENJO@HOTMAIL.EU

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL. 943 572083
FAX. 943 571190
Laseinjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20910 ORIO

URAITZ
Lurrikolatuak
pintz-ogurak

2014ko Martxoaren 28a

Euskaraz bizi-bizi, besteez raka-raka

Moila bazterretik begiratzten ditugu arazoak pasatzen, hauek adarretatik heldu eta zuzentzen saiatu beharrean.

ehertuko zela pentsatzen genuen denok, lehertuko ginela. Baina urte batzuk pasa dira dagoeneko eta denak/denok bere lekuan jarraitzen du/dugu. Sugarrak piztuta dirauen arren ez da suaren arrastorik.

Krisiak sortutako egonezina eta amorrua ez da gure hizketaldietan gai nagusia, ez da trendin topic, alegia. Ez gara elkartu eta frente egiteko kapaz, ez dugu hausnatzen egoera honetara zerk ekarri gaituen, ezta auto-kritika sakonik egiten ere; arazoari soluzioa aurkitu beharrean auzokritikan xahutzen dugu denbora.

Krisiak sortutako gorrotoa aldamenekoaren sorbaldara jaurtitzen dugu dagokionari beharrean. Bakoitzari berea, jaungoikoaren legea.

Ez gara autosufizienteak, ez gara gure buruak aurrera ateratzeko gai, artaldean funtzionatzen dugu, ixil-ixilik artzainari jarraituz, honek gure burua geronek baino hobeto gidatuko duelakoan. Fidatu egiten gara edo zerbaiten beldur gara? Moila bazterretik begiratzten ditugu arazoak pasatzen, hauek adarretatik heldu eta zuzentzen saiatu beharko genukenez. Gauzak aldatu beharrean horrela jarraitu nahi dugula ematen du...

Bada gure mixeriak alboratzeko formula bat, gure buruhausteak momentuan ahaztuarazten dizkigun soluzioa, irtenbidea: besteen gabeziez, txarrez edota minez jardutea, hitz batean, kotileoa. Zuloa duen jertse bati partxea jartzen zaionean bezalaxe gertatzen da, ikusi ez arren zuloak hor dirau.



Zigor Esoain

Gu baino egoera okerragoan dagoen jendea dagoela ikusteak kontsolatzen gaitu. Besteen ikatza gure opari. Ez al da tamalgarria?

Askotan atso edota agure zaharren kontua dela uste dugu, baina ez! gazteok ere gozatzen dugu sudoku honekin. Fenomeno hori ez da Kutixin, Goxokin eta kiroldegian bakarrik gertatzen; Errustan, Ollagorran eta gaztetxean ere bizirik dagoen praktika da.

Norberaren ordua iristen denean datoz komeriak ordea, dianaren erdian guri jartzen gaituztenean. Orduan konturatzen gara orain arte guretzat denbora-pasa izan denak zenbat buruhauste ekar ditzaken, ezjakintasunetik jardutea zein arriskutsua den, eta zenbat min egin dezaketek hitzek balen modura jaurtitzen direnean. Paum, paum bizkarretik laguna!

Askotan lagundu nahi horretan ere kaltea egiten dugu konturatu gabe, beste askotan, aitzitik, lagundu nahiez mozorrotzen dugu min egiteko nahia. Otsua artzai.

Bere onenean ez dagoen pertsonak indarrak besteetaz gaizki esaka jarduten xahutu beharrean, bere buruan inbertitzen baditu lehenago suspertuko da; txutxumutxuka dabilenak aldiz, dioena egia izanda ere, lagundu orde zozorratu besterik ez du egiten, besteen oinazetik morboa egiten ari baita.

Raka-raka dabilena, bat eta huts galtzen ari da partida jokatzeko hasterako. Hitz egin dezagun zerk ekarri gaituen krisi honetara. Hitz egin dezagun denon artean, elkarlanean, nola egin diezaiokegun aurre bizkarra erakusten digun egoera honi. Elkarren artean harrika ibiltzean gure buruari haririk handiena botatzen ari gara-eta.



Unai Manterola

Aiako parrokiaren adierazpena

KARKARA aldizkariko 348. zenbakian Moja-etxeren inguruko erreportajea dela eta Aiako San Esteban Parrokiak aditzera eman du bere iritzia

Etxe horren dokumentazio guztia Elizaren esku dago, bera denez jabe bakarra. Eta Eliza da jabeago horren erabilera, salmenta edo dena delakoa erabaki behar duena. Auzolanean egiteak ez dio gauza bati izaera publikoa ematen. Pentsa era horretan konpondutako hainbeste etxe eta baserri noren jabe gokoak izan behar luketen.

Gainera, Estatuaren eta Elizaren bereizketa-beharra azpimarratzea hainbeste gustatzen zaigun egunotan, ez dira nahastu behar herritarrak eta eliztarrak, ez baitira kolektibo bera. Etxe hori eraiki eta zaindu dutenak Aiako eliztarrak dira. Gaur ere bai.

2. Lardizabal jaunak 700 metroko lur zatia eman zion Leandro Urretabizkaia parrokoari, bai. Baina horri erantsi egin behar zaio, bi urte lehenago –1931ko martxoaren 21ean– Parroko horrek berak ia beste horrenbesteko lursaila erosi zuela bost jabe desberdini.

3. Leandro Urretabizkaia ez zen errepublikanoa. Alderantziz, bazekien Espainian zehar –1931ko apirilaren 14tik– apaizen eta elizaren kontra egiten ari zirena –4.184 apaiz, 13 gotzain eta 2.648 moja eta fraile hil zituzten eta ehundaka Eliza erre–. Beldur zen Gipuzkoara iritsi eta Elizaren ondatsunak desjabetuko ote zituzten –ehun urte lehenago Mendizabalek egin bezala– eta horregatik jarri zuen Moja-etxe bere izenean. Hala dio anaiak Elizari itzuli zioneko eskurak. Beraz On Hilariok ez zuen egin berea zena bueltan hartzea besterik.

4. Eraikina oinarrizko beharrak asetzeko egokitzeko erforman ez zen erakunde publikoen inolako diru-laguntzarik jaso. Parrokiak jasoak dauzka agiri guztiak. Eta proiektua ez zen, gainera, bertan behera geratu, baizik eta aurrera egin zuen Manuel Aizpuruaren eskutik eta hainbat adineko bizi izandu ziren bertan. Gero ere, hau sinatzen duen apaizak eskaini du eraikina zahar-etxe egiteko, inolako erantzunik gabe.

5. Gaiarekin lotuta dagoen bakarra Eliza da. Beraz, ez du inork beste pausorik eman beharrik. Elizak erabakiko du egin behar dituen obretarako zein ondasun saldu eta zein ez. Elizak erabakiko du eliztarrei diru-laguntza eskatu edo ez. Eta eliztarrek erabakiko dute eman edo ez. Guk ez dugu inor ezertara behartzen.

Inork ez dauka Gotzaindegira joan beharrik Moja-etxe erabiltzeko baimena eskatzera. Aiako Parrokoa da eta erabakia hartzeko eskumena duena. Ondasunak ez baitaude Gotzaindegiaren izenean, Aiako San Esteban Parrokiaren izenean baizik.

Udalak dira herritarren kultur ekintzak egiteko tokiak bermatu behar dituztenak. Aiak badu kultur-etxe eder askoa. Horien faltan utzi izan du Elizak bere eraikinak erabiltzen. Gaur ez dago horren beharrik.

Ez dugu onartuko behin eta berriz Elizaren ondasunetan muturra sartzerik. Kristau-elkartean biziki parte hartzen dutenak, eta Elizaren ondatsunak zaintzen eta diruz laguntzen dutenak, nahikoa laguntzaile ditut nik gure ondasunen etorkizuna aztertu, hausnartu eta erabakitzeko.

PUBLIZITATEA

bodegas ERRASTI, S. L.



Ekuialderako banatzailea
Zudugarai, Geturiako txakolina
Ilagares, ardo gorri-miharra.
Bodegas Gailur: Senorio de Luergain
Gailur eta Ardanategi.
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 40 ORIO • 943 83 03 00 / 83 59 52 • E-pentzi: bodegaserrasti@mozakabret.net

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

LUXARBE
igeltzarri

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisarik gabe

Can txukuna
eta merkea


Tfnos: 943 09 59 00

60 eurotik hasita
www.fotoramiro.com



943 83 10 48
610 697 668

tel/fax: 943 89 00 69
Bilbao kalea 4, 20810 ZARAUZ



ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Proiektuak konpromisarik gabe

LORETXU JAKITZEA



Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

KABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezin automatikak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74
Arrantzale, 33 20810 ORIO

Azkue



Tf: 943 130 438

Azkue

Katu MORIA
GILBERRA-ERREKIN KANTINA



ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
+31. 943 11 66 99
LARRIALDIAN
668 89 11 29

Faroeko bakailaia daukagu

ITSAS MENDI

gutzizak

Eusko Gudari, 8 Tel: 943 28 87 74 Oriu

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



1940ko irailean, arrauneko banderen bedeinkazioa elizan. IÑAKI ITURAIN

Jokin Aldabe, Orioko nafar ekintzailea

Oroimenaren kutxa

KARKARAREN urtarrileko zenbakian, Anjel Lizaso sakristauaren historia azaldu genuen. Epika handirik gabeko arduran luze irautea azpimarratu genuen, bide bakarra urratzea.

Lizaso 1954an sakristau hasi zen arte, Joakin Aldabe Juanikotenak izan zuen ardura hori. Aldaberen kasua Lizasorenaren guztiz bestelakoa da, ia beste muturrekoa. Joakinek ez zuen horrenbeste urtean iraun bere arduretara, baina asko izan zituen bere bizitzan, eta gorabehera are gehiago. Lizasok luze iraun zuen, Aldabek zabal hartu zuen.

Zer dakigu Joakin Aldabe zenaz? Beran jaio zen 1893ko otsailaren 9an, Nafarroan. Oriora etorrita, Concepcion Lertxundi Oñederrarekin ezkondu eta seme bat izan zuten, Inazio; eta 1973ko uztailaren 6an hil zen.

Aldabek 80 urteko bizitza luze bezain bete izan zuen. Beran jaiotako gizonak ardura asko hartu zituen Orioko erakunde inportanteenetan. Udaleko zergen administratzaile izan zen, arrantzaleen kofradiako sekretario, elizako sakristau, EAJren bazkide, Batzokiko zinearen sortzaile eta antolatzaile, El Dia egunkari nazionalistako idazle, olerkari, San Pedro festa-programako bertsoen egile, eta herriko denda bateko nagusi. Hori dena.

Baina Aldaberen belaunaldikoei gerra egokitu zitzaizkien, 1936koa. Orion, matxinatuak sartu ondoren, udal berria osatu zenean, Udalak hartu zuen aurrenekoetako erabakia izan zen udaletxeko langileen artean garbiketa ideologikoa egitea. 1936ko abenduaren 2an udaletxeko postutik kendu egin zuten Aldabe jauna.

1937ko urtarrilaren 18ko udal bilkuran erabaki zuten Aldabe behin-betikoa kargugabetzea eta lanik eta soldatarik gabe uztea. Honela zioen orduko aktak: *Joaquin Aldabe, administrador destituido, fue interventor del Partido Nacionalista Vasco en las elecciones, separatista, escritor del diario El*

Diaperiódico también separatista y fundador del cine en el Batzoki, dando con esto impulso al mismo.

Horixe izan zuen delitu eta horrexek utzi zuen kale gorrian: herriko haur eta gaztetxoei batzokian zinea emateak. Horrexek bakarrik ondo erakusten du nolakoak ziren zigortu zutenak.

Aldabek udaletxean baino ibilbide hobea izan zuen elizan, sakristau, eta arrantzaleen San Nikolas Kofradian, sekretario. Anjel Lizasok 1954an ordezkatu zuen elizan, eta Benedikto Etxeberriak 1960an, kofradian. Aldabek kofradiako ardura 1956tik izan zuen.

Beharbada, fabore eta dena egin zioten udaletxetik botata: adoretu egingo zuten eta, gainera, gustuko zuenerako denbora gehiago utzi: idazteko, olerkiak sortzeko.

Joakin Aldaberi buruzko biografia-artikulu bat idatzi zuen Juan Garmendiak, Aurrezki Kutxa Probintzialak bere aldizkarian 1977an argitaratua. Artikuluak dioenez, Orion eginkizun asko izanagatik, Aldabe batez ere poeta izan zen, hala jaio omen zen. Askok idatzi zuen: Diario Vasco egunkarian, Karmel eta Olerti aldizkarietan eta Donostiako La Cruz astekarian. El Bidasoa, Diario de Navarra, Zeruko Argia, Nafarroako Principe de Viana eta Donostiako Stella Marisen. Moko zorrotz zuen idazteko goitizen, euskaraz, eta Irazekiya, erdaraz.

Urtetan, San Pedro festetako programan agertzen ziren bertsoen egilea izan zen. Ia frankismo osoan euskaraz Orion modu publikoan argitaratu eman ziren idatzi bakarrak izango ziren Aldaberenak. Bertso haietan, Aldabek sorta bana eskaini zien, 1948an Maria Maistrari, eta 1949an Santiago Azurzari, haien herri-lana gorai patuz. Batzokiko zinea kendu zioten; baina idazteko gogoia, irudimena eta herriarekiko maitasuna, ez.

IÑAKI ITURAIN

Hiru urte bandera gorri eta horiarekin bueltaka



Udaletxearen fatxada banderarik gabe. KARKARA

Soka luzeko historia da espainiar banderarena. Udalerrri guztiak busti ditugaiak eta ia denek bete dute legedia, azkena, Aia. Orioko Udalak, ordea, ezer gertatu ez balitz bezala jokatzen du eta ez du banderarik etxe-aurrean.

1981

Espainiako banderak udaletxe kanpoan egon behar du zintzilik, eta eraikun-

tzaren barruan, leku esanguratsuengan. Honela zioen urte horretan indarrean jarri zen legeak. Egun, indarrean darrai. Baina 1981 urtea geroztik ez du bandera hori eta gorririk dantzatu Orioko Udalean.

2012

Bandera udaletxean jartzeko lehen agindua iritsi zen 31 urte beranduago.

Gutun ofiziala Karlos Urkijo Espainiako Gobernuaren ordezkariak sinatutakoa zen eta 39/1981 legea zuen hizpide. Maiatzaren 24ko idatzi haren bidez hilabeteren buruan araudia betetzeko eskatzen zien gobernuko delegatuak.

Urte bereko uztailean Udalaren eze-gitea medio, Donostiako epaitegian helegitea tartetatu zuen Espainiar Gobernu delegazioak; Gobernu Zentralk Erkidegoan duen ordezkariak. Orioko Udalaren aurkako gelditasuna salatu zuen, posible baita egiten denaren aurka nahiz ez egitearen kontra errekurtsoa jartzea.

2013

Epaitegiak arrazoia eman zion; osotasunean ontzat eman zuen estatuko administrazioak tartetatu zuen helegitea. Epaitegiak deklaratu zuen Udalaren jarduera legez kontrakoa dela eta hori zuzentzeko legea bete behar duela, bandera espainiarra ipini behar duela. Kanpoan, Udaletxearen fatxadan; eta barruan, leku esanguratsuengan, pleno aretoan.

Erabakia Udalak hartu behar du. Donostiako epaitegiaren agindutik urtebete igaro da, eta egoerak berdin jarraitzen du. Haizeak ez du astintzen espainiar banderarik Orioko Udalean, ez kanpoan eta ez barruan.

Bildu

la denek jarri dute; azkena Aiak. Urtebete da Orioko Udalak espainola hilabetean jartzeko sententzia jaso zuela. Alkatea kargutik kendu dezake Urkijok. Euskararen normalizazioan, hazkunde antolatuaneta herri zerbitzuak hobetzen eragin nahi dugu. Politika egiten jarraitzeko inposaketaz legea bete behar. Badira larriagoak: udalean egunero espainolez hitz egitea edo politika polizialean era errepresibo eta espainolean aritzea.

Orain: Espainolen arazoa

Ikurrinaren arazo moduan saltzen digute baina ez dago horrelakorik, gurearekin ez daukagu arazorik. Sabino Aranak asmatu zuenetik geurea egin eta aberriaren ikur gisa erabiltzen dugu. Arazoa espainol inperialista -gogoratu, inperioan ez zen eguzkia ezkututzen- zapaltzaileek daukate eta duten handikeriak ziprztintzen digu. Ikurrena adibide bat da. Gure esku dago egoera hau aldatzea, denon eskutan, zurean ere bai.

EAJ: Inposaketa judiziala

Sententzia judizialak bete behar direnez bandera jartzea besterik ez zaigu gertzen: demokraziaren handitasun eta miseriak. Udaleko balkoian bandera espainola jartzeko kakalarriz zeudenak kalera irteten ziren kementsu Ikurrina bai, espainola ez ohiukatuz. Orain jabetzen dira ez zutela borondatez jartzen, inposaketa judizialen ondorioz baik. Gu, kontra gaudenez, saihesteko baliabideak erabilliko ditugu.

ORIOKO HERRI IKASTOLA

Sukaldaritza tailerrak Basque Culinary Centerren eskutik



Basque Culinary Centerreko 2 irakasle martxoak 11tik 14ra etorri ziren Orioko Herri Ikastolara sukaldaritza irakastera. Ikastolako jangelan sei saio egin ziren: lau LH5 eta DBH 2ko ikasleentzat eta beste bi gurasoentzat. Lehenengo taldeetan banatu ginen erosketak egiteko. Sukaldean hasi baino lehen, tresnen erabilpena azaldu ziguten eta baita janaria nola prestatu ere. Pausoak jarraituz, bazkaria prestatzea bukatu genuen eta gure otordua jan genuen.

LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Otsailaren 28an Lardizabalgo ikasleek Iñauteriak ospatu genituen



Arratsaldeko hiruretan hasi zen jaialdia 5. eta 6. mailako surfista trebeekin, baina 3. eta 4. mailako marmoka maltzurrek azkar izutu zituzten. Bi buzo sartu ziren ondoren izutu nahian. Gero, 2 eta 3 urteko olagarroen artean igeri ibili ziren. Horiek joan eta 5. eta 6. mailako arrantzaleak sartu ziren. 5 urteko marrazoen ondoren, 1. eta 2. mailako arrainen txanda izan zen. 4 urteko txipiroiek beraien tintaz lurrak zikindu zuten. Pingüino bihurrien ondoren denok batera agurtu ginen.

ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Eskola handitzeko hitzarmena sinatuko dugu datorren hilabetean



Astean behin, jolas garaian, mahai jolasetan aritzeko aukera dugu. Zikloka antolatuta daukagu. Jangela egokitzen da horretarako eta jolastu nahi duenak bertara gerturatu besterik ez du. Betiko jolasak daukagu: xake, kartak.... Horiez gain, jolas kooperatiboak daukagu: Hop, hop, hop!, Piccobello... eta beste hauek: Mihi luze, Auskalo, Euskopoli.... Oso ongi pasatzen dugu. Eguraldi ona bada kanpoan jolastea gustatzen zaigu eta eguraldi txarra bada jangelara joaten gara.



Lydia Etxaniz

Bikoteka irakurtzen

Nire ustez proiektu hau, bikoteka irakurtzen, oso lagungarria da. Nire kasuan hobeto ulertzen eta hobeto irakurtzen laguntzen dit. Nik esango nuke niri bezala besteei ere laguntzen diela.

Niri irakurtzea ez zait asko gustatzen, zaila egiten zait liburu bat irakurri eta ondo ulertzea. Izan ere, irakurri ditudan liburu bakarrak azterketa egiteko izan dira. Baina, hemendik aurrera hobeto egingo dudala esango nuke, bikoteka irakurtzen proiektua ulermena lantzeko eta garatzeko lagungarria delako. Niri behintzat lagundu dit.

Gainera, nire iritzi proiektu honen bidez eskolako lagunak, lagun handiagoak egiten ere laguntzen du, zeren eta elkarlan estua dago. Esate baterako, ni eta nire bikotekidea lagunak gara, baina nik uste dut orain lan hau elkarrekin burutzen gauden unetik, hobeto konpontzen garela.

Bikoteka irakurtzen proiektuak badu zerbait ez zaidana gustatzen. Hau da, ikasle batzuek edo bikoteek altuegi irakurtzen dutela; ondorioz, horrek, batzuei galerazi egiten digu irakurtzen duguna ondo ulertzen, kontzentrario galtzen baitugu.

Amaitzeko esan proiektu honenkin lan egitea oso interesgarria eta lagungarria dela. Beraz, denbora luzean berearekin lanean eta ikasten egotea espero dut; eta bai irakasleak bai ikasleak berearekin –bikoteka irakurtzen proiektuarekin– lan egitera animatuko nituzke.

PUBLIZITATEA

azkue  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20800 Ala-Orio
 Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

Lizaso
 dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

 **gizarte**
kutxa



MANTEROLA S/L
 ESFERA ETA RETENTZIOKO
 BALBULAK

Santiago azkua - 18 portakuta
 Tel.943 836 743
 Fax.943 134 634
 Email: manterola@manterola.com
 20619 ORIO - GIPUZKOA

Estreko balbulak
 ABERON kulture-erakundeak

26 GURPIL



Basozite 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)
 Tf: 943 833 888 www.26gurpil.com hgurpil@hotmail.com

OREKA
 FISIOTERAPIA



TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZIFALEAK ...

MASAJE TERAPEUTIKOA
 BENTOSAK, AKUPUNTURA
 ESKUZKO TERAPIA
 OSTEOPATIA

943 13 35 37

ARIZTIGIA KALEA, 11 BERRIA

LURDES
 ARRAINDUEGIA



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ille apaingegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio

 **GARMENDIA**
ARMONIZAZIOA - AHOKIZ, ARITZA - ARREGURIAN

Ibaiz Ordo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

ederritogian
ANTILLA
juvelerian



Ahosiari Kalea, 2 - Tel. 943 833 23 00

ITZALA

*karriekin jokatzen
 aritzen*

tel. 943 83 12 59

Bizitzaren errontondan harrapatuta



Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi antzezlanoen eszena batean. KARKARA

Ostirala, pintxo-pote eguna, aste guztian ikusi ez ditugun lagunekin jiji-jaja ibili eta eguna bukatzeko antzerkia herrian, gainera doan! Kultur etxeko aretoak zezen-plaza txikia dirudi, gelan sartu eta besaulki arteko pasiloak erdian eraikitako plazatzora garamatza. Non eseriko gara?

Halako batean lekua hartu dugu, hemendik goitik ederki ikusiko da! Ingurua eta ezsenatokia erreparatu eta lehendik buruan nuen leku-eskema –aktoreak oholtzan, ikusleak parez pare– ezabatu dut. Sumo konbate bat hasiko zela pentsatu dut argiak itzali eta bozgorailuetatik trafiko hotsa entzun arte. Konbatea hastera doa!

Borroka egiteko txikiak eta argalak dira bi emakume hauek... A! Rotonda baten aurrean gaude-eta! Bizitzaren errotondan, hain justu. Gizakiok izaten ditugun gogoeta, bakarrizketa eta *burujan* aldrebesek askotan zentzurik izaten ez duten arren behin eta berriz galdetuko diogu gure buruari: *ta oain ze?*

AIZPEA ESNAOLA

Etxarten magia



Ikusleak ere kantatuarazi zituen Etxartek. KARKARA

Ez da egunero izaten Niko Etxart bezalako musikari bat herriko kultur etxean doan ikusteko aukera, eta hori bagenekien bertara inguratu ginen oriotarrok. Lasai eserita itxaron genion aretoan eta bertara sartu zenean hasi zen magia.

Pierre Topetez, Benitoz, Kolon Txikiz... hitz egin zuen abesti eta abesti artean, baita belarra mozteko makina gainera nola erori zitzaion kontatu ere. Baina gaueko protagonista bere ahotsa izan zen.

Pasatako mendeetako kantuekin hasi zen, gehienetan gitarrarekin, pare bat aldiz ahots hutsean. Hamasei urterekin idatzi zuen lehen abestia, Joseba Sarrionandia eta Itxaro Bordari eginiko bluesa... gozatzen ari zela nabari zitzaion. Publikoa kantari ere jarri zuen Jaun Baruak abestiarekin, eta gero ez zion isiltzen utzi.

Kantari jarri zuen baita ere Mikel Markez, lehen ilaran zegoena. Eperra eta Euskal Rock & Roll abestu zuten biek. Bukatzeko, Xalbadorren Heriotzean kantatu zuen ikusleokin ahots batean.

MIRIAM GARCIA

Kritika Niko Etxart

Musika, Niko Etxartek kontzertua eskaini zuen martxoaren 21 gauen Orioko Kultur Etxean.



Ekonomia

Akzionisten gerragatik merkaturatik atera dituzte TSkoak

Galerak hasi baina urte bete lehenago, 2008an, marka guztiak hautsi zituen TS Fundicioneak, sei milioi euroko irabaziak lortu baitzituen. Sei urte beranduago, 31 milioi euroko zorra dauka enpresak eta 360 langile izatetik 150 izatera pasa da. Enpresa likidatzeko bidean jarri dute jabeek, hau da, enpresan dauden 150 langileak kale gorrian utzi nahi dituzte buruek.

@karkara.com/albisteak/akzionisten-arteko-gerragatik-merkaturatik-atera-gaituzte



HASI TXIOKA

Bideogintzaren aldeko apostuarekin bat al zatozte?



Jendartea

Gipuzkoako Adinekoen Aldeko Manifestua

Martxoaren 11n, Gipuzkoako Adinekoen Aldeko Manifestua 2013 aurkeztu zen Salatxo Aretoan, Urola Kostako adineko pertsonen kontseiluak eta Zaharren Babeslekuak antolatuta. 2013an landutako bigarren manifestu hau berrikusteko gizarte aldaketak kontuan hartu ditu Kontseiluak. Batetik, errealitate berriari eta ikaskuntza berriei egokitzeko eta, bestetik, etorkizunean ikusten dituzten mehatxuei aurrean jarrera bat hartzeko garaia dela ikusten dute.

Kirola

Dimentsio handia hartu du Lilatoiak

Urte urte gero eta jende gehiago hartu izan du Lilatoi lasterketak. Emakumezkoen kirol eremuko protagonista izateko aurreneko dei hartatik gaur egun arte 25 aldiz egin da korrika saioa, Donostiako kaleetan barrrena. Edizio berezia izan da hortaz igandean, martxoaren 9an, jokaturakoa. 3.500 emakumek hartu zuten parte, inoizko gehiena. Urtero bezala, tartean izan ziren oriotarrak eta aiarrak ere: 25 oriotar eta 5 aiar.

Jendartea

Lapurreta egin dute Orion

Urola Kostan hainbat salaketa jarri dira lapurretatik, eta horietako bat, Orion. Modus operandi berdina darabilte lapurreta guztietan; bizilagunen etxebizitzan obrak egiten ari diren langile direla diote.

Aitzakia horrekin, etxe barrura sartzen dira, ea akatsik dagoen ikustera. Aztertu nahi dutena ezberdina izaten da: batzuetan hodiak, ur-jarioak, itoginak edota hezetasuna. Behin barruan daudela, bere arrastoa gal dezazun ahalegintzen dira, dirua, bitxiak eta balioko artikulua lapurtzeko.





Udal kontuak Aurrekontuak %18 jaitsi dira 2014 urtean

14. urteko aurrekontuak aurkeztu zituen, atzo, Udalak. Bilera irekia zen, eragile eta herritar guzientzat. Udal Gobernuak, Orain eta Bilduk, bereziki garrantzitsua ikusten zuen herritarren partaidetza, herritarrena baita aurrekontua. Bertaratutakoak, ordea, gutxi batzuk izan ziren; 13 hain juxtu. Laburbilduz, eta zenbakietara mugatuz, zuzeneko diru laguntzak %14 igo dira, elkarteenak %1 eta aurrekontua %18 jaitsi da. Udalak bizi duen egoera erraza ez den arren, ez dauka zorrik ezta mailegurik.

@ karkara.com/albisteak/aurrekontua-18-jaitsi-da-2014an-1/



Ingurumena Euripean ere, hondartza txukunduz

11:00. Larunbata. Euria goitik behera, gelditu gabe. Haizea eta hotza. Hondartzan zikinkeria asko eta 35 bat pertsona garbitzeko asmotan. Eguraldia medio, lehendabizi garbitasunaren garrantziaz aritu ziren, aterpean. Bizipenak elkarbanatu zituzten, iritziak. Orioko hondartzaz gain, inguruko mendiak ere agertu ziren bizipenetan. Pena eta tristura sentitzen zuten bertaratutakoek, mendi buelta egitera joan eta larreetan zikinkeriak aurkitzean. Euriak deskantsua hartu bezain pronto basura poltsak banatu eta zakarrez betetzeari ekin zioten.

@ karkara.com/albisteak/hondartza-garbigeta/

Hirugarrenez antolatatu den Kirol Erronkaren argazkiak



@ karkara.com/albisteak/oriok-irabazizuen-kirol-erronka/

Aurkeztu dute Kilometroetako kanta



@ http://www.kilometroak.net/abestia

Emakumeen eguna hizpide izanik egin genuen bideoa



@ karkara.com/albisteak/hiru-generazio-hiru-errealitate-eta-hiru-iritzi/

ZERBITZUAK

Martxoko sarituak

Juanita Mendizabal Salsamendi

Kaiua

Miren Zeruko Echeverria Guridi

Anarri

30 €

Arturpeko dendetan gastatzeko



AGENDA

Orio

Musika

- Apirilak 4, ostirala. Gauean DJak Etxeluzen.
- Apirilak 12, larunbata. Benito Lertxundiren kontzertua, 22:00etan Karela Kiroldegian. KMK 2014.

Zinema

- Apirilak 4, ostirala. Laburbira emanaldia. 22:30etan Kultur Etxean.

Traste zaharrak

- Apirilak 9 eta apirilak 30, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoren. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer bota behar den jakinarazteko. Tf: 943 830 346

Mendi irteerak

- Apirilak 13, igandea. Urederrara irteera, Talai Mendi elkarteak antolatuta.
- Apirilak 17, osteguna. Orio-Arantzazu, Talai Mendi elkarteak antolatuta. 4:00etan irteera. Bilera asteartea 15ean Talai Mendiko lokalean 8:30etan.

Aia

Txakoli eguna

- Apirilak 13, igandea. Aiako XII. Txakoli Eguna.

Azoka

- Apirilak 26 eta 27. Landare berezien XII. Azoka.

Ekintzak Iturranen

- Apirilak 5, larunbata. Fenologiaren inguruko bisita gidatua, 11:00etan.
- Apirilak 12, larunbata. Jose Almandoren bisita gidatua, 11:00etan.
- Apirilak 17, 18, 19, 20 eta 21. Erleen inguruko jardunaldiak, 13:00etatik hasita.
- Apirilak 27, igandea. Ikebana tailerra, 10:30etan eta 12:30etan.

Erakusketak

- Aste santuak bitartean, Patricia Schaaenen erakusketa Jauregi tabernan.
- Ekainaren 30era bitartean, *Barru Argia*, Maria Mamertaren argazki erakusketa, Iturranen Parketxean.
- Apirilaren 1etik ekainaren 30era, *Ani marbolak*, Vicente Guinearen argazki erakusketa, Iturranen Parketxean.

Podologoa

- Apirilak 26, larunbata. Podologoaren kontsulta sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:19 eta 18:38	00:00 eta 12:22	
02	06:58 eta 19:16	00:41 eta 13:01	
03	07:38 eta 19:55	01:21 eta 13:40	
04	08:17 eta 20:35	02:02 eta 14:20	
05	09:00 eta 21:19	02:45 eta 15:03	
06	09:49 eta 22:14	03:34 eta 15:53	
07	10:54 eta 23:25	04:33 eta 16:56	
08	12:18 eta _____	05:46 eta 18:13	
09	00:49 eta 13:37	07:04 eta 19:28	
10	02:00 eta 14:36	08:08 eta 20:28	
11	02:52 eta 15:20	08:58 eta 21:14	
12	03:34 eta 15:57	09:38 eta 21:53	
13	04:11 eta 16:31	10:14 eta 22:29	
14	04:45 eta 17:04	10:49 eta 23:04	
15	05:19 eta 17:37	11:23 eta 23:40	
16	05:54 eta 18:11	11:59 eta _____	
17	06:30 eta 18:47	00:16 eta 12:35	
18	07:08 eta 19:26	00:55 eta 13:14	
19	07:50 eta 20:10	01:37 eta 13:57	
20	08:38 eta 21:01	02:25 eta 14:45	
21	09:36 eta 22:04	03:20 eta 15:43	
22	10:48 eta 23:21	04:26 eta 16:53	
23	12:12 eta _____	05:43 eta 18:12	
24	00:44 eta 13:31	07:01 eta 19:28	
25	01:58 eta 14:36	08:10 eta 20:33	
26	02:59 eta 15:30	09:07 eta 21:27	
27	03:50 eta 16:16	09:55 eta 22:15	
28	04:36 eta 16:58	10:39 eta 22:59	
29	05:18 eta 17:38	11:20 eta 23:40	
30	05:58 eta 18:16	11:58 eta _____	

ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA

- 1etik 4ra, Lasa.
- 5ean eta 6an, Azaldegia.
- 7an, Zulaika
- 8an, Mutiozabal.
- 9an, Etxeberria.
- 10ean, Gallo Artiñano.
- 11n, Azaldegia.
- 12an eta 13an, Zulaika
- 14an, Mutiozabal.
- 15ean, Etxeberria.
- 16an, Gallo Artiñano.
- 17an, Lasa.
- 18an, Larrañaga.
- 19an, Lasa.
- 20 eta 21ean, Larrañaga.
- 22an, Gallo Artiñano.
- 23an Azaldegia.
- 24an Zulaika.
- 25ean, Gallo Artiñano.
- 26an eta 27an, Iriarte.
- 28an, Gallo Artiñano.
- 29an, Etxeberria.
- 30ean, Zulaika.

- **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

2.
FASEAwww.garraioahobetzen.net**herritarrek**
martxan en marcha

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI**Parte-hartzaila guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela kargat-
zeko 20 euroko bonoak zotz
egingo ditugu.**GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?**

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

AIA**APIRILAK 7, ASTELEHENA
19:00 – KULTUR ETXEA**

= TIEN 21 = = TIEN 21 = = TIEN 21 = = TIEN 21 = = TIEN 21 = = TIEN 21 =

IZARRA BIDEOA**Altzairua****AEG****729€****Led Phillips Smart 40"**

24" - 229€

22" - 179€

19" - 149€

409€**299€****Zanussi
Indukzioa****10 HILABETETAN
INTERES GABE****Balay 5,5kg****1000 r.p.m.****259€**

7Kg - 289€

**439€****Siemens
Pirolitiko****ZURE DENDA BETI ESKAINTZEKIN****EZ BOTA TONER HUTSA****BETE EZAZU HEMEN ETA AURREZTU****%60**

RA ARTE

**PENDRIVE SANDISK
8GB****5€****SAGUA 4,95€****TOSHIBA PRO C50-1C8
HDD 500Gb
RAM 4Gb****399€****%5****DESKONTUA TABLET ETA
SMARTPHONETAN****KUPOI HAU MOZTU ETA DENDAN AURREZU EZAZU****IZARRA**

= TIEN 21 =

EUSKO GUDARI - 44 - 943 833 881

= TIEN 21 =